

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Siempre fue terror.
Vomito.
Ttan-Ttakun irratia /
Puzkarra Records.
Iraupena: 47'13".
12,99 euro.

Bat-batekotasunetik kutsu ilunera arteko iraganeko punka

ASIER MENDIZABAL "N'kono" donostiarrak Irungo Vomito punk taldearen grabazioak argitara ateratzeko ahalegina egin du. Taldeko baxu jotzaile Claus Grottenen laguntzarekin zuzenekoetako kantuak berreskuratu eta masterizatu egin dituzte. Lan hori oso itxura oneko binilo karpetan batu dute, taldearen gaineko liburuxka batekin aberastuta. Hala Bedi Irratiak aspaldi kaleratutako zuzeneko batean soilik

entzungai izan zen *Niños terroristas* da kanta argitaragabe bakarra, baita hastapenetako *Soy una bomba* taldeko abeslaria zen Victor gabe grabatutakoa. Bestela, sorrerako punk gordin eta azkarretik abiatuta, taldeari pertsonalitate eta izaera berezia eman zioten kutsu iluneko piezekin jarraitzen du. Hitzak taldearen garapenaren isla dira: poliziaren aurkakoak eta heriotzaren edota zoramenaren gainekoak.

Asier Mendizabal - Diskoaren argitaratzailea

«Bigarren diskotik aurrera taldeak heldutasun handia lortu zuen gauzak egiteko moduan»

Noiz ezagutu zenuen Vomito taldea?

1988an, 15 bat urte nituenean. Egiako gaztetxean ikusi nituen Eskoria-Tza taldearekin. Orduan gustatu zitzaizkidan besterik gabe, baina gerora bigarren diskoa kaleratu eta gero, arrasto handia utzi zuten nigan.

Siempre fue terror. Zergatik izenburu hori?

Vomitok kaleratu zuen bigarren maketak, 1985ekoak, *No es esto terror?* izena zuen. Eta lan honen izena horren erantzuna da, taldeko baxu jotzaile Claus Grottenek asmatutakoa.

Noiz eta nola bururatu zitzaizun halako lan-omenaldia egitea?

Biniloen eta punkaren zaletua naiz aspalditik, eta iaz Frantziako Hopla! taldearen single bat kaleratu nuen. Horren ostean, beste zerbait egin nahi nuen, eta Vomitoen maketak berrargitaratzea pentsatu nuen. Zintak entzuten hasi nintzen eta Clausengana jo nuen. Azkenean biok erabaki genuen Vomitoen bigarren sasoiak interesgarriagoa dela. Hala, zuzenekoak batzen hasi ginen eta horien aukeraketa egiteaz gain, tal-

dearen gaineko liburuxka prestatu nuen.

Hortaz, taldekideek ondo hartu zuten zure asmoa?

Bai, Clausek asko lagundu dit: lanari izenburua jarri, grabazioak bilatu, abestien aukeraketan esku hartu... Gainera, biok oso argi genuen diskoaren itxura eta taldearen gaineko informazioa zaintzea garrantzitsua zela.

Zer dauka Vomitoen bigarren sasoiak zuretzat interesgarri izateko?

Oso gazte hasi ziren eta hasierako kantak eta hitzak sinpleagoak ziren. Gerora, bigarren diskotik aurrera, berriz, taldeak heldutasuna lortu zuen gauzak egiteko moduan. Hitz interesgarriagoak idatzi zituzten, eta erritmoak lasaiagoak ziren arren kantu sendoak egin zituzten.

Biniloan kaleratu beharra zegoen?

Derrigorrez ez, baina nik biniloa maite dut eta badakit biniloak non mugitu daitez-

keen. Hala ere, norbaitek interesa erakutsiko balu, baliteke noizbait CDan ere kaleratzea. ■

